

***2025EKO EUSKAL HERRIKO
LANEKO EZBEHARREN TXOSTENA***

2026eko otsaila

***PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE***

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU

1. SAR HITZA

Azken urteetan, Euskal Herriko langileria zerbitzu publikoen eraispén eta pribatizazio prozesu etengabea pairatzen ari da. Zerbitzu publikoak ez dira behar bezala garatu, eta orain, gabezia horiek zuzendu eta indartu beharrean, Hego Euskal Herriko instituzioak gobernatzen dituzten alderdi politikoek pixkanaka horiek ahultzeko hautua egin dute. Prozesu hori ez da egun batetik bestera gertatu; poliki, tantaka, baina etengabe gauzatzen ari da.

Pribatizaziorantzko urratsak ematen diren heinean, zerbitzuen kalitatea okertzen ari da, eta aldi berean, langileen lan-baldintzak ere kaskartzen dira. Zerbitzua langile publikoekin ematen jarraitzen den kasuetan, lan-kargaren handitzeak eta inbertsio faltak eragiten dute kalitatearen galera. Azpikontratazioa ezartzen denean, berriz, langileak baldintza askoz okerragoetan kontratatzen dira. Argi dago erabaki horien atzean ez dagoela langileon eta, oro har, jendartearen ongizatea, kapitalaren eta enpresa jakin batzuen etekinak lehenestea baizik. Horrek ondorio larriak ditu Euskal Herriko langileentzat.

Egoerarik larrienetakoa osasungintzakoa da. Itxaron-zerrenda amaigabeak, anbulatorioetan baliabide eta zerbitzuen murrizketa, telefono bidezko kontsulten hedapena edota arlo batzuetako pribatizazioa gero eta ohikoagoak dira. Osakidetza eta Osasunbidea ahultzen diren neurrian, osasungintzako enpresa pribatuak indarra hartzen dute. Batetik, sistema publikoa ahultzeak aseguru eta zerbitzu pribatuaren kontratazioa handitzen duelako; bestetik, mutualitateei gero eta eskumen handiagoak ematen zaizkielako.

2

Logika horren baitan, mutualitateei gaixotasun eta istripu arrunt batzuk artatzeko ahalmen handiagoa eman zaie. Aspalditik ari gara ohartarazten politika publikoak aldatu ezean, osasungintzaren dualizaziorantz goazela: alde batetik, osasun sistema publiko ahuldua; bestetik, ordaindu dezakeenarentzat gero eta indartsuagoa den osasungintza pribatua. Emandako urratsen ondorioz, zoritxarrez, gero eta hurbilago dugu agertoki hori.

Langileon osasun-arretan dagoen egoera kezkarriari prebentzioaren atzerakada gehitu behar zaio. Prebentzio legea betearazteko baliabideak eskasak dira, eta patronalaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak oso mugatuak. Nafarroan agerian geratu da enpresen %80ak ez duela prebentzio legea betetzen¹, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, horrelako azterketa baten faltan, datuak antzekoak direla suma dezakegu. Egoera hori izanik ere, patronalak absentismoaren inguruko diskurtsoa indartzen du, arazoaren jatorria langileengan kokatuz. Egutero langileak gaixotzen diren bitartean eta lan-istripuak eta heriotzak ohikoak diren bitartean, patronalak bere erantzukizunak saihestu eta absentismoa arazo politiko bihurtu nahi du. Negoziazio kolektiboan edo gutxieneko soldata propioaren aferan ere argi ikusi dugu absentismoaren mantra erabiltzen ari direla eskubideak murrizteko edo hain ezinbestekoa dugun gutxieneko soldata propio bati ezezkoa emateko.

Lan-istripuak eta laneko gaixotasunak, batez ere, bi arrazoiengatik gertatzen dira: prebentzio-neurri egokien faltagatik eta enpleguaren prekaritatearengatik. Prekaritateak eragin zuzena du laneko osasunean, eta gero eta sakonagoa da eta gero eta zabaldago da. Hego Euskal Herrian, bi langiletik batek ez du bizitza duin bat garatzeko adinako diru-sarrerarik. Emakumeak, gazteak, langile migratu eta arrazializatuak eta aniztasun funtzionala

1. Naiz. El 80% de las empresas navarras no cumple con la prevención de riesgos, reconoce el Gobierno. <https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20250703/el-80-de-las-empresas-navarras-no-cumple-con-la-prevencion-de-riesgos-reconoce-el-gobierno>

dutenak dira egoera okerrenean daudenak. Horri gehitu behar zaio zaintza-lan ez ordainduak oraindik ere nagusiki emakumeen gain daudela, ondorioz hauek lanaldi bikoitzak egin behar dituztela, eta honek ondorio kaltegarriak dakartzala laneko osasunean.

Patronalarentzat, laneko osasuna bermatzea ez da errentagarria. Osasunaren arreta eta prebentzioa ikuspegi merkantilista batetik kudeatzen ditu. Lanean gaixotu edo hil beharrik ez izateko neurri egokiak behar ditugu, baina patronalak neurrien kostua bere gain hartzea baino errentagarriagozat jotzen du prebentzioa alde batera uztea. Honen aurrean, Euskal Herriko instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek beste alde batera begiratzen dute, eta ikuskaritzak ez du bere eginkizuna behar bezala betetzen.

Euskal Autonomia Erkidegoan Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) eta Nafarroan NOPLOik (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua) laneko osasunaren inguruko plan estrategikoak eginak dituzte. Hala ere, orri ugari bete arren, ez da neurri eraginkorrik hartu arazoaren erroetara heltzeko. Horretarako erabaki politiko ausartak behar dira, baina gaur-gaurkoz ez dago horretarako borondaterik. Laneko osasuna ez da instituzioen lehentasuna, ez prebentzioa, ezta ondorengo artatzea ere. Egoera horren aurrean, LAB, STEILAS, ESK, EHNE-Etxalde eta HIRU sindikatuok laneko osasunerako eskubidea bermatzea lehentasun nagusien artean daukagu, eta norabide horretan lanean jarraituko dugu.

2. ONDORIO NAGUSIAK

84 lan istripu hilgarri izan dira 2025ean Euskal Herrian gutxienez, eta horietarik 4, kanpoan hildako euskal langileak izan dira.

Istripu hilgarri ez traumatikoek gorakada izan dute. Garraioan heriotzek igoera nabarmena izan dute, baina beste batzuk, altuerak eragindako erorketak esaterako, jaitsiera izan dute. Azken hamarkadako datu okerrean izan da 2025ekoa, batez ere sektore jakin batzuetako prekaritateak eraginda. Era berean intersindikala osatzen dugun sindikatuok detektatu ditugun heriotzak gehiago izan direla esan dezakegu, ikerketa prozesuan aurrera pausoak eman ditugulako.

Aurtengo laneko ezbeharren datuek aurreko urteetako hausnarketa berresten dute. Intentsitate ezberdina eman da istripu mota batzuetan. Ez da lan istripuak ekiditeko neurri eraginkorrik hartu, eta ondorioz, aurreko urteetako egoera mantendu da. Sektore jakin batzuetan istripu larri edo hilgarriak pairatzea errazagoa da, hala nola basogintzan, eraikuntzan, garraioan eta industria. Aldiz, sektore feminizatueta laneko gaitzak izaten dira eurri handiagoan, baina kopuru ofizialei begiratuta, bistan da ez direla aitortzen.

Lan istripuetan hildakoaren profila gizonezko migratu eta arrazializatuarena da, eta laneko gaitzak dituenarena emakume migratu eta arrazializatua.

Laneko gaitzei dagokionez, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bai Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE) iaz baina gehiago aitortu dira nahiz eta mutualitateek egiten duten azpierreregistroak bere horretan jarraitzen duen. **Osasunerako Munduko Erakundearen (OME)** esanetan, minbizia da heriotza gehien eragiten duen laneko gaitza. Aldiz, **lanak eragindako**

minbizi kasuen aitortza ofiziala guztiz testimoniala da. Lanak eragindako 34 minbizi kasu aitortu ziren EAEn 2024ean, kopuru guztiz testimoniala. Amiantoak gaixotutako langileen aitortza ere nekeza izaten da, eta askotan langilea hil ostean iristen da. Aurten, ASVIAMIE eta ADAVAN amiantoaren kalteen inguruan lan egiten duten erakundeei esker, Hego Euskal Herrian 31 heriotzaren berri izan dugu. Laneko gaitzek eragindako heriotz hauek ez dira datu ofizialetan ageri. Zer esanik ez jatorri psikosoziala duten arazoengatik, modu nabarmenean sektore feminizatuei eragiten dietenak. Gaitz hauek ez dira laneko gaitz bezala airtortzen. Lanak eragindako gaixotasun muskuloeskeletiko gehienak, sektore feminizatueta intzidentzia handiagoa dutenak, kontingentzia arruntzat jotzen dira, enpresen ardura saihesteko. Laneko gaixotasunak ikusezintasun handienera daude kondenatuta oraindik, are gehiago emakumeen kasuan. Lan batzuk hil egiten dute, eta beste batzuk ez dute bizitzen uzten.

Istripu tasa honen atzean enpresen prebentzio falta dago. Aurten lehen aldiz Nafarroako Gobernuak txosten bat argitaratu du² prebentzio falta horren datuak emanez³. Orohar, Nafarroako enpresen %80ak ez du prebentzio araudia integratu. Txostenaren zehaztasunak ere oso argigarriak dira, bertan arrisku psikosozialen prebentzioa %10era iritsi ez dela jasotzen da eta arrisku muskuloeskeletikoena %5era. Datu hauek argi uzten dute patronala dela istripu eta gaitz kopuru handi honen eragile, eta gainera argi geratzen da baja kopuru handiena sortzen duen kausetan prebentzioa ez dela kontuan hartzen.

- Datu ofizialek errealitatea ezkututzen dute:

- Datu ofizialek EAEn beherakada erakusten dute (istripu gutxiago komunikatu dira), nahiz eta langile kopuruak gora egin duen. Nafarroan aldiz, istripu kopurua mantendu da, eta Espainiako Estatuko datu okerrenetakoak ditu, beste behin ere.
- Datu ofizialek laneko gaitzen igoera nabarmena adierazten dute. Albistea ez da aitortza igo dela, aitortu gabe zenbat laneko gaitz geratzen diren baizik.
- Sindikatuok gero eta sarriago azaleratzen dugu mutualitateek ez dituztela istripuak eta laneko gaitzak onartzen.
- Istripuen komunikazioa enpresak berak egiten du. Milaka istripu arin komunikatu gabe geratzen dira eta langileak botikinean edo lanorduz kanpo anbulategietan artatuak izaten dira.
- Istripuen kalifikazioa ez da irizpide objektibo batzuen baitan egiten, irizpide objektibo horiek ez daudelako legalki araututa. Beraz, mutualitateko sendagileak erabakitzen du istripu bakoitzaren larritasunaren izendapena, teoriar irizpide tekniko, baina gure ustez, mutualitateak markatutako irizpide enpresarialeak. Ondorioz, ezin dugu ondorio fidagarriarik atera gai horri dagokionez.
- Adibide hauek eta beste hainbatek erakusten dute absentismoa ke-laino bat dela eta arazo nagusia laneko arriskuak direla, patronalak legedia urratuz eragiten dituen arriskuak, emaitza latzekin: **84 hildako Euskal Herrian eta 95.000 istripu traumatiko Hego Euskal Herrian**^{4 5}.

² Gobierno de Navarra. Salud potencia la atención en prevención de riesgos laborales a 20.000 personas trabajadoras de la zona de Tafalla. <https://www.navarra.es/es/-/nota-prensa/salud-potencia-la-atencion-en-prevencion-de-riesgos-laborales-a-20-000-personas-trabajadoras-de-la-zona-de-tafalla>

³ Diario de Noticias. Solo una de cada tres empresas en Navarra investiga de manera adecuada un accidente laboral. <https://www.noticiasdenavarra.com/economia/2025/10/07/tres-empresas-navarra-investiga-manera-eficaz-accidente-laboral-10184103.html>

⁴ Osalan. Hileko taulak - 2025ko estatistikak. <https://www.osalan.euskadi.eus/webosa00-reستاosa/eu/?r01kPageContents=/webosa00-conteستا/eu/&r01kQry=t-C%3Aeuskadi%3BtF%3Aopendata%3BtT%3Aestadística%3Bm%3AestadísticaDiffusionDate.BETWEEN.01%2F01%2F2025%2C31%2F12%2F2025%2CdocumentLanguage.EQ.eu%3Bo%3AcontentCreateDate.DESC%3BcO%3A01e00000fe4e66771ba470b819e45a15e8799725%3Bp%3AInter%3Bpp:r01PageSize.15>

⁵ NOPLOI. Lan istripuak eta gaixotasun profesionalak. Nafarroako lan istripuei buruzko txostenak https://www.navarra.es/home_es/Temas/Portal-de-la-Salud/Profesionales/Informacion-tecnica/Salud-laboral/accidentes-trabajo-enfermedades-profesionales.htm

♦ Sindikatuok lan istripuz hildako 84 langile zenbatu ditugu, administrazioak aldiz, 42 heriotza aitortu ditu. Gobernuek hainbat amarru erabiltzen dituzte heriotzak ezkutatzeke, soilik hemen altan emandako langileen lan istripuak aitortu, auto istripuz hildako langileak ez aintzat hartu, heriotza ez traumatikoak saihestu, eta orain gero eta argiago ikusten ari garen bezala, istripu traumatikoak ere ez onartu.

- Heriotza ez traumatikoetan, faktore laborala ukaezina da. Azken hamarkadetan, gizartean orohar, intzidentzia kardiobaskularraren beherakada izan da, baina honek ez du islada berdina izan lan munduan. 1990etik 2006ra adibidez, Estatu Espainiarrean bihotzekoz hildakoen kopurua %40ean jaitsi zen⁶. Hau, orokorrean bizitza ohitura osasuntsuagoak edukitzeagatik izan dela esan dezakegu. Aldiz, Hego Euskal Herriko langileria aktiboan, bihotzekoen intzidentziak ez du pareko beherakadarik izan. Ulertu dezakegu beraz, laneko faktoreek, estresak, gero eta erritmo altuagoek, presioak, prekaritateak, etab. eragin nabarmena dutela mota honetako heriotzetan.

- Emakumeen lanaldi bikoitzak eragin zuzena dauka lan osasunean. Oraindik ere emakumeak dira etxeko eta zaintza lanez neurri handiagoan arduratzen direnak. Enpleguaz gain, etxeko eta zaintza lanak egiten dituzte eta lanaldi bikoitzera kondenatuta egoten dira. Presioak eta estresak osasunaren galera dakar, eta arazo muskuloeskeletikoak ere nabarmen igotzen dira kasu horietan.

3. EMAKUMEON EGOERA IKUSEZIN

Laneko istripuen ondoriozko datuak aurkeztean, emakumeen eta sektore feminizatueta osasun galera eta heriotzak kontuan ez hartzeko arriskua izan dezakegu. Laneko osasunaz ari garenean ere, emakumeen errealitatea ikusarazteko saiakera berezitua egin beharrean gaude. Izan ere:

♦ Sektore feminizatueta gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta eta ez dira kontuan hartzen; bai zeregin errepikakorrekina eta karga-zereginekin lotutakoak, sistema muskulo-eskeletikoan eragin zuzenak dutenak, bai aitortu gabeko zaintza lanei lotutako arrisku psikosozial guztiak, osagai emozional oso handia dutenak. Estresarekin lotutako gaixotasunak ia bi aldiz handiagoak dira emakumeen artean, gizonekin alderatuta. Hau, aldi berean, bihotzeko gaixotasunekin, muskuloeskeletikoekin, depresioarekin eta akidurarekin lotzen da⁷, baina gehienetan gaixotasun arrunt gisa tratatzen dira, patronalen mutualitateetara jotzen dugunean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horien lan-jatorria.

♦ 10 urtean, 2014tik 2024ra, emakumeen laneko gaixotasunak 629 kasutik 1.242ra igaro dira. Horiek aitortutakoak baino ez dira. Badakigu askoz gehiago direla, baina prekaritate-egoerengatik eta patronalen mutualitateek patologien lan-jatorria ukatzen dutenez, errealitatea askoz larriagoa da.

Eskuartein dugun txosten hau aztertzerako garaian beraz, emakumeen lan osasunaren urraketen ikusezintasuna kontuan hartzeko elementua izango da.

4. IPAR EUSKAL HERRIAN DATU OFIZIALIK EZ

Lurraldetasunaren aitortza ofizial ezaren beste aurpegi bat da Ipar Euskal Herriko lan

⁶ Sociedad Española de Cardiología. La mortalidad por infarto en España se ha reducido un 40% desde 1990. https://secardiologia.es/comunicacion/notas-de-prensa/notas-de-prensa-sec/4481-mortalidad-por-infarto-en-espana-se-ha-reducido-40-desde-1990?utm_source=chatgpt.com

⁷ National Institute for Occupational Safety and Health (NIOSH). Science Blog. Women's Health at Work. 2013/5/13. <https://www.cdc.gov/niosh/blogs/2013/womens-health-at-work.html>

osasunaren inguruko datuak Akitania zabalean ematen diren datu orokorretan disolbatzea. Frantziaren administrazioaren hautu politikoa da aitortza eza, euskal nortasuna ezabatzearen helburua duena. Ezinbestekoa da lurraldetasuna errespetatzea euskal herritarroi dagozkigun eskubideei bide emateko, eta beste arlo askoren artean, lan osasunean ere bermeak eskaintzeko. Urtero izaten da laneko heriotzaren bat hemen ere, eta aurtan nekazari gazte bat hil da, traktorea iraulita, Maulen.

5. LAN ISTRIPU HILGARRIAK

LAB, ESK, STEILAS, EHNE-Etxalde eta HIRU sindikatuok **2025ean lan istripuz hildako 84 langile zenbatu ditugu**. Hauetatik 50 EAEn hil dira eta 29 Nafarroan, eta Ipar Euskal Herrian langile bat hil da. Azken laurak, atzerrian edo itsasoan hildako euskal langileak dira. Kopuru hau horien berri izan dugun hildako langileena, 84, baina gutxienez diogu, gehiago ere izan litezkelako.


2025. urtean 84ra igo da hildako langileen kopurua, **azken hamarkadako kopuru altuena** sindikatuok jasotako datuei arabera. Istripu tasa ofizialek EAEn beherakada bat erakusten duten bitartean, istripuei dagokienean ere azpierregeroa nabarmena izan arren, hilkortasun datu lazgarri honen atzean hainbat faktore egon daitezke. Zehaztapenetan sartu aurretik, **istripuen komunikazio ofizialean dagoen nahasmena aipatu beharko genuke**. Horrela, Osalanek komunikatu gabeko baina aintzat hartutako 17 istripu hilgarri azaleratzeko gai izan gara aurtan.

Istripu larri eta hilgarriak ezagutzeko iturriak hainbat dira. Gure afiliazio sare zabala horietako bat da eta komunikabideetatik ere izaten dugu euren berri. Iturri ofizialek ere jakinarazten dizkigute batzuk, zehazki EAEn, Osalanek istripu batzuen aurre-txostena igortzen digu, baina hau ez da beti gertatzen. Nola dakigu hori? Osalanek bere webguneko estatistika ataleko azpi karpeta batean istripuen zerrenda argitaratzen du, herrialdea, hilabetea eta sektorea identifikatuz. Hemen geratzen da nabarmen zerrendakoen eta komunikatuen arteko aldea.

Izkutatutako istripu hilgarri hauen inguruko azalpenak zein horien inguruko xehetasunak hainbat aldiz eskatu ditugu, zehazki LAB sindikatuak parte hartzen duen Osalanen Kontseilu Nagusian bertan. Beste istripuak komunikatzen diren moduan jakinarazteko eskaera luzatu diogu Osalani. **Osalanen erantzuna ezezkua izan da**. Beraz, istripu hilgarri horiek, gerora Osalanen webguneko estatistika ataleko azpi karpeta batean arakatu behar dira eta banaka-banaka komunikatzen direnekin edo eta beste iturrien bidez ezagutu ditugunekin kontrastatze ariketa egin behar dugu, azken hauek azalarazteko.

Lan istripu hilgarriak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
ARABA	30	37	3	5	6	6	18	10	9	11	4	14
BIZKAIA			29	20	30	16	24	22	15	11	16	21
GIPUZKOA			8	16	10	9	17	16	19	16	18	15
NAFARROA	9	15	13	14	21	15	11	20	20	12	17	29
IPARRALDEA	0	3	2	0	1	0	3	0	2	5	0	1
Atzerrian hildako euskal langileak kontuan hartuta.										4	9	4
EUSKAL HERRIAN	39	55	55	55	68	46	73	68	69	59	64	84

LAN ISTRIPU HILGARRIEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN

**2024****Istripu hilgarrien zehaztasunetan sartuta:**

- ♦ Ez traumatikoak 19 langile
- ♦ Kolpeak/harrapaketak 18 langile
 - horietatik makinekin zerikusia dutenak 7 langile
- ♦ Errepidean (in itinere/in mision) 15 langile
- ♦ Altueratik eroriak 11 langile

2025**Istripu hilgarrien zehaztasunetan sartuta:**

- ♦ Ez traumatikoak 25 langile
- ♦ Kolpeak/harrapaketak 17 langile
 - Karga gainera erorita 3
 - Obretako makinak harrapatuta 4
 - Kamioiak/autoak harrapatuta 4
 - Adarrak kolpatuta 3
- ♦ Errepidean (in itinere/in mision) 12 langile
- ♦ Altueratik eroriak 3 langile
- ♦ Traktorea iraulita 2 langile

2024**Sektore kritikoak:**

- ♦ Basogintza 3 langile
- ♦ Arrantza 2 langile
- ♦ Nekazaritza 3 langile
 - 2 pistan kotxez
 - 1 traktorea iraulita
- ♦ Industria 19 langile
 - Makinekin 7 langile
- ♦ Eraikuntza 11 langile
- ♦ Garraioa 14 langile
 - Horietatik 4 ez traumatikoak
- ♦ Azpikontratatuak gutxienez 10 langile

2025**Sektore kritikoak:**

- ♦ Basogintza 3 langile
- ♦ Arrantza langile 1
- ♦ Nekazaritza 2 langile (traktorea iraulita)
- ♦ Industria 16 langile
 - Makinekin 3 langile
- ♦ Eraikuntza 12 langile
- ♦ Garraioa 22 langile
 - Horietatik 9 ez traumatikoak
- ♦ Azpikontratatuak gutxienez 9 langile

Berriro ere datuek berresten dute sektore jakin batzuetan istripuz hiltzeko aukera gehiago dagoela, hala nola garraioan, basogintzan, eraikuntzan, industrian, nekazaritzan edo arrantzan.

Sektore hauetako batzuetan, araudi berezitua izanik ere, hilkortasun tasa nabarmen altuagoa da. Nahiz eta azken urteetan aktibitate arriskutsuetarako lan osasunerako araudia egokituz joan den, oraindik ere istripu tasek oso altuak izaten jarraitzen dute. Aztertutako istripuen atzean, beti, araudiaren ez-betetzeak gailentzen dira.

Eremu azpikontratatueta izaniko heriotza kopuru altua ere aztertzekoa da. Behin eta berriz salatu dugu azpikontratazioaren eraginez prekaritatea eta lan baldintzen okertzea areagotu egiten dela, eta lan osasunaren bermea ez da salbuespen bat. Azpikontratazioak patronalaren gastuak murriztea du helburu, langileen lan baldintzen bizkar. Azpikontratetako langileen lan osasuna bermatzea beraz, patronalaren azken kezketako bat da.

Bestalde, ohiko istripuetatik haratago heriotza **ez traumatikoek** presentzia oso garrantzitsua dute. Arazo kardiobaskularrek sortuak dira hauek. Istripu hilgarrien %30a dira. 2025ean mota honetako 25 heriotza izan dira eta urte honetan 2024ko proportzio bera errepikatu da.

Historikoki, bai patronalak bai administrazioak “heriotza natural” bezala izendatu dituzte, baina denbora pasa ahala eta datuen ezagutza zabalagoarekin, hauetan laneko faktoreek duten zerikusia gero eta nabarmenagoa da. Istripu hauek ere multikausalak dira, eta pertsona bakoitzaren berezko faktoreez gain, bizi ohiturek ere badute beren eragina. Lanak eragindako faktore garrantzitsuenen artean, estresa eta arrisku psikosozialak dira errealitate honen atzean dauden beste osagai garrantzitsu batzuk, eta azken urteetan, hoberantz egin beharrean okerrera egin dugu nabarmen. Egun, Osalanek zein NOPLOIk, euskal langileriak pairatzen duen lehen arrisku faktore bezala aitortzen dituzte arrisku psikosozialak.

Azken 15 urteetan Espainiako Estatuan, gizartean orohar, arazo kardiobaskularrek eragindako heriotzek behera egin dute nabarmen Osasun Ministeritzaren arabera. 2006. urtean 22.028 izan ziren eta 2021ean 13.463. Aldiz, lan munduan gertatzen diren heriotza ez traumatikoek ez dute beheranzko joera hau erakutsi, eta batzuetan igo ere egin dira. **Gainera, kontuan izan behar dugu laneko ordutan hildakoak soilik daudela kontabilizatuta.** Kotizatzen ari den langile kopurua areagotzeak ez luke inondik inora justifikatuko heriotza ez traumatikoen kopuru hori, gizarte osoan gertatzen ari den beheranzko joera horrekin konpentsatuko litzateke hein handi batean. Honela, laneko arrisku faktoreen eragina nabaria dela adierazi behar dugu, eta urtetik urtera estresa eta arrisku psikosozialak gero eta ugari eta bortitza goak dira, eta honek heriotza ez traumatikoen kopuru altuan eragina du.

Langileen heriotzen %30a eragiten duen arrisku faktore honen inguruan Osalan eta NOPLOiek izugarritzko lana dute egiteko, lanak eragindako faktoreen kontrolean esku hartuz. Ezin dugu onartu orain arte bezala “heriotza natural” modura kudeatuak izatea, baina tamalez, erakunde hauek eskema horretan jarraitzen dute.

Basogintzak urtero erakusten du lan sektore hilgarriena izatearen errekor iluna. 3 heriotza eta hainbat istripu larri utzi ditu 2025ean. Urtez urte sektore arriskutsuena dela erakusten

jarraitzen du. Kontuan hartu behar dugu 1.000 langile inguru daudela langintza honetan eta heriotza tasa oso altua izaten jarraitzen duela. Sektore honetan lan baldintzak oso gogorrak dira eta patronalak lan osasuneko araudia ez betetzea oso normalizatua dago. Osalanek eta NOPLOIk urtero garatzen dituzten gomendio planen porrotak heriotzen zerrenda elikatzen dute. 2024Ean, hainbat ekimenen ostean, neurri sorta bat proposatu genien Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei ere, baina gaur arte ez dugu erantzunik jaso. 2025ean ekimen ikusgarri bat egin dugu Iruñean eta hainbat neurri erregistratu⁸ ditugu, baina ez dugu erantzunik jaso Nafarroako Gobernutik. Bitartean, azken hone, basogintzarako gida argitaratu du sindikatuen ikuspegia aintzat hartu gabe⁹.

Garraiolarien egoerak ere aipamen berezia eskatzen du, gero eta larriagoa baita. Sektoreko langileek pairatzen dituzten baldintzak urtetik urtera gogortzen ari dira. Nazioarteko merkatuek, estatuen inongo babes neurririk gabe, lan baldintzak kaskartzen dituzte sektore eta lanbide globalizatu honetan. Nafarroan eta Gipuzkoan sektoreko hitzarmena 2008tik berritu gabe dago, honek dakarren prekarizazioarekin. Hitzarmenen berritzea lan osasunean hobetzeko neurri garrantzitsuenetarikoa da.

2025ak azken hamarkadetako lan istripu larriena utzi du Euskal Herrian. Honetan, 4 langile hil ziren Fiteron bi kamioik elkar jota. Kamioi bakoitzean bi garraiolari zihoazen, senar-emazteak, eta denek zuten garraio txartela. Ohikoa bilakatzen ari den moduan, Europa ekialdeko langileak, batzutan bikote direnak, kamioian bizitzera kondenatzen dituzte, esklabo moduan asteak joan eta asteak etorri etengabe kamioitik jaitsi gabe lan egitera. XXI mendeko esklabutza eredu hau gure errepideetan hedatzen ari da administrazioak esku hartu gabe. Esan gabe doa, garraiolari hauek atzerritarrak izanik ez direla lan heriotza bezala kontabilizatuko.

2024an 14 garraiolari hil ziren lan-istripuz Euskal Herrian, eta 2025ean 22. Horietatik 9 istripu ez traumatiko izendatuak izan dira, sarri kamioian geldituta, kabinan zeudela gertatutakoak. Lanaldi luzeek, estres maila altuak, lan sedentarioa izateak, digitalizazioaren bitarteko kontrol zorrotzak eta presioak eragin latzak ditu sektorean, istripu traumatiko edota ez traumatikoak pairatzeko aukera handiak dituen sektorea da garraioa.

Aipagarria da, batetik, bizia galdu duten garraiolarien adina. 50 urtetik gora dituzte ia denek. Sektorea zahartzen ari da. Ez dago erreleborik, ez dago garraiolari gazterik, lan-baldintzak ez direlako batere onak. Sektoreko jubilazio adina segurtasun ikuspegitik erregulatze beharra dago, beste lanbide batzuetan egin ohi den bezala, 60 urtetan kokatuz.

Eta hildakoak daudenean, ez daitezela lan-istripuen estatistika ofizialak murrizten saiatu. Administrazioak ez ditzala heriotza natural edo errepideko edo trafikoko ezbehar gisa hartu. Lan istripuak dira argi eta garbi. Garraiolaria lanean ari zirela gertatzen dira.

Industria sektorean 16 hildako izan dira 2025ean, 2024ko kopuruaren azpitik. Azken urteetan salatzen gatozen moduan istripu horietako asko makina erremintaren araudia

⁸ EFE. Los sindicatos exigen medidas para proteger a los trabajadores del sector forestal. <https://efe.com/navarra/2025-11-10/acto-de-protesta-por-los-accidentes-forestales/>

⁹ Gobierno de Navarra. Salud Laboral publica una guía para reducir los accidentes laborales en el sector forestal e impulsar la prevención de riesgos en estas empresas. <https://www.navarra.es/es/-/nota-prensa/salud-laboral-publica-una-guia-para-reducir-los-accidentes-laborales-en-el-sector-forestal-e-impulsar-la-prevencion-de-riesgos-en-estas-empresas?redirect=%2Fes%2Fempleo&pageBackId=6529020>

betetzen ez delako izaten dira. Larritasun ezberdineko istripuak izaten dira, baina baita hilgarriak ere. Aurten 3 hildako izan dira makinekin.

Aipatu izan dugun bezala, makinek araututako kontrol bat pasa behar izango balute (autoen IAT bezala), gehienek ez lukete gaindituko, segurtasun arazo larriak tarteko.

Industrian gertatu diren beste istripu hilgarriak kargen erorketekin edo zamatze lanetan kamioi eta ibilgailuek eragindako harrapaketekin izan dira.

Eraikuntzan 2025ean 12 hildako izan dira Euskal Herrian, 2024an baino bat gehiago. Honek 2023ko datuen jaitsiera puntuala eteten du, eta ohiko datuetara itzuli gara. Eraikuntzako heriotzek lotura zuzena izan ohi dute altuerako erorketekin baina 2025ean kausak dibertsifikatu dira, makina eta garabiek eragindako harrapatzeengatik, kontaktu elektrikoengatik, eta piezek eragindako kolpeengatik ere gertatu baitira istripu hilgarriak. Datuak ikusirik, eraikuntza sektorea berriro ere hilgarrien artean kokatzen da basogintza eta garraioarekin batera.

Nekazaritza eta arrantzan 3 hildako izan dira. Nekazaritzari dagokionez, istripu ohikoak diren traktore iraulketek eragin dituzte heriotzak, bata Maulen eta bestea Nafarroa Garaian. Traktoreen istripuen atzean mantenu falta eta prebentzio eta formakuntza urria egon ohi dira, lan tresna mekaniko horrek dituen arriskuak gutxiesten dituztenak. Arrantzan 2025ean izan den hildakoa istripu ez traumatikoan izan da. Itsasoan gertatu izanak osasun arreta garaiz jasotzeko ezintasuna nabarmen utzi du.

Errepideetan (in itinere eta in mision) 12 heriotza izan dira. Nafarroan egon dira istripu horietako asko. Bertan dagoen zentralizazioak egunero desplazamendu kopuru izugarria eragiten du, eta hau dago errepideko lan istripu kopuru handiaren atzean. Zentralizazioak erabaki politiko suntsitzaille bati erantzuten dio, herriak eta aranak hustutzen dituen, Nafarroaren beraren izaera apurtuaz. Sindikatuok, honen aurrean, neurri sorta bat mahai-gaineratu genuen 2024an, baina gobernuaren aldetik ez da inongo erantzunik izan, gaur arte.

Etxez-etxeko laguntzan ziharduten bi langile hil dira in mision istripuz, Nafarroan eta Araban. Lan ordutan egin beharreko desplazamentu andana eta horiek egiteko denbora urria daude kausen atzean. Argi geratzen da ratioen estutzeak heriotza dakarrela.

DATU OFIZIALEN INGURUKO IRAKURKETA:

Datuak xehatu eta aztertzen hasi aurretik, adierazi behar dugu laneko istripu hilgarriei dagokienonez, EAEn SOS Deiak-en bidez komunikatzen zaizkiola lehen instantzian Osalani eta lan ikuskaritzari. Honek esan nahi du pribatizatua izan den zerbitzu publiko batetako langileek (SOS Deiak-ekoek), ertzain bat buru dutelarik, erabakitzen dutela zer izan daiteken lan istripu eta zer ez. Honela, hainbat heriotzaren berri izan dugu SOS Deiak-ek lan istripuztat jo ez dituenak. Bestalde, nahiz eta administrazioak abisua jaso eta enpresak berak komunikazioa egin (legez derrigorrezkoa denez), batzuetan ez dituzte heriotza horiek ofizialki jasotzen ikerketa prozeduren aitzakiapean edo autopsian edozein zirrikitu bilatuaz istripuaren jatorri laborala ukatzeko. Honi batu behar zaio laneko orduetan gidatzen gertatutako edo in-itinere izandako istripu asko ere ez direla taula ofizialetan islatzen.

Datu ofizialetan, istripua izan den lurraldean bertan altan emanda dauden langileak baino ez dituzte hartzen aintzat. Esaterako, Euskal Herrian hamarkadetan gertatu den istripu larriena, Fiteron 4 garraiolariren heriotza eragin zuena, ez da datu ofizialetan azalduko.

Nafarroan, 2025ean ia berdindu egin dira 2024ko lan istripuen datuak. EAEn aldiz, istripu kopurua gutxitu egin da datu ofizialen arabera. Gainera, azpimarratu behar da langile kopuruak ere gora egin duela eta honek oraindik ere eragin handiagoa izan du indizeetan. Nafarroan, intzidentzia (istripu kopurua 1.000 langileko) 41 puntu inguruan mantendu da eta EAEn, 32tik 29ra jaitsi, beti ere komunikatutako eta onartutako istripuak soilik kontuan hartuta.

Gutziz paradoxikoa da datu ofizialen argazkia, sindikatuon datuetan jasotako hildako kopuruaren areagotzea kontuan hartzen badugu.

Istripu hilgarrien konparaketa:

	2025		2023		2023		2022		2021		2020	
	Datu ofizialak (Azarora arte)	sindika-tuonak	Datu ofizialak (Azarora arte)	sindika-tuonak	Datu ofizialak	LAB	Datu ofizialak	LAB	Datu ofizialak	LAB	Datu ofizialak	LAB
Araba	9	14	3	4	5	11	5	9	10	10	5	18
Gipuzkoa	10	15	13	18	10	16	14	19	12	16	6	17
Bizkaia	11	21	11	16	15	11	7	15	13	22	16	24
Nafarroa	12 azarora arte	29 Nafarroan -30 nafar	20	17 Nafarroan - 26 nafar	11	12	12	20	13	20	11	11
Ipar EH	-	1	-	0	-	5	-	2	-	0	-	3
EHTik kanpo	-	4 (bat itsasoan)	-	9		4						
GUZTIRA	42	84	47	64	41	59	38	69	48	68	38	73

6. LAN ISTRIPU KOPURU OFIZIALAK


	Baja gabeak			Arinak (baja)			Larriak (baja)			Hilgarriak		
	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira
2013	45.159	13.251	58.410	27.769	6.410	34.179	157	57	214	40	12	52*
2014	45.790	12.302	58.092	27.909	6.874	34.783	156	55	211	30	9	39*
2015	50.828	12.478	63.306	30.012	7.599	37.611	176	62	238	37	15	55*
2016	51.675	13.448	65.123	31.397	8.828	40.225	165	67	232	40	13	53*
2017	48.634	13.806	62.440	33.333	9.290	42.623	199	59	258	41	13	54*
2018	47.110	13.670	60.780	34.181	9.816	43.997	217	66	283	46	21	67*
2019	46.137	14.392	60.529	36.870	12.174	49.044	206	97	303	31	15	46*
2020	36.204	11.010	47.214	29.979	9.948	39.927	196	77	273	59	11	70*
2021	38.282	12.781	51.063	34.606	11.455	46.061	210	79	289	48	20	68*
2022	37.351	12.257	49.608	36.291	12.079	48.217	252	88	354	43	20	63*
2023	37.764	11.944	49.708	36.057	12.478	48.535	154	67	221	30	11	41*
2024	37.671	12.439	50.110	38.439	11.730	50.169	201	69	270	27	22	49*
2025	35.288	11.290**	46.578	36.011	12.662**	48.673	183	80**	263**	30	12*	42*

Hildakoen kopuru ofizialetan, enpresa istripua izan den lurraldean bertan dutenak aitortzen dira, ez enpresa beste lurralde batean erregistratuta dutenak.


* Azaro arteko datu ofiziala ponderatu gabe.

**2025ko datu ofizialak azaro artekoak dira, beraz, 12 hilabetera ponderaturik daude irakurketa osatzeko

ISTRIPU ARINEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN (Baja gabeak eta bajarekin)



ISTRIPU LARRIEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN



Hegoaldeko administrazioek eskeintzen dituzten datu ofizialak patronalak ekoitziak dira. Istripuen zein laneko gaixotasunen (kontingentzia profesionalen) komunikazioa, patronalak mutualitateen bidez egiten du. Mutualitateek aplikazio informatikoak erabiliaz, Nafarroan Delta sistema eta EAEn IGATT, Gizarte Segurantza, Osakidetza zein Osasunbideari jakinarazten diete kontingentzia profesionalen intzidentzia. Beraz, Patronalak jokalariei eta epaile lanak egiten ditu eta honela datuak nahi eran faltsutzeko aukera paregabea du. Soilik modu honetan ulertu dezakegu administrazio publikoak laneko istripu, heriotza eta laneko gaixotasunen aurrean duten azpierregristoa. Bai Osalango bai NOPLOiko kontseiluetan Patronaleko ordezkariak soilik ukatzen du azpierregristo hau, beste guztiek, administrazioko ordezkariak barne, aitortzen dute.

LAN ISTRIPU ARIN ETA LARRIAK:

Lan heriotzak izkutatzea ez da erraza, sindikatuok badiugulako baliabideak hauen berri izateko, heriotzak albiste izan ohi direlako. Aldiz, istripu arin eta larriak ezkutatzea askoz errazagoa da, eta hemen, enpresen zein mutualitateen erabakien eskuetan dago datuekin egindako amarrua.

Honela, Patronalak EAE-ko administrazioari agindutako datuen arabera, istripu kopuruaren beherakada ikusi ahal izan dugu iazko datuekin alderatuaz, %6koa hain zuzen.

Lan istripuak EAEn	2025	2024	2023	2022
Bajadunak	36.011	38.439	36.057	36.291
Bajagabeak	35.288	37.671	37.764	37.351
GUZTIRA EAE	71.299	76.110	73.821	73.642

Lan istripuak Nafarroa Garaian	2025	2024	2023	2022
Bajadunak	12.662*	11.730	12.478	12.079
Baja gabeak	11.290*	12.439	11.944	12.257
GUZTIRA NAFARROA	23.952*	24.169	24.422	24.336

GUZTIRA Hego Euskal Herria	2025	2024	2023	2022
	95.251*	100.279	98.243	97.978
Birgaixotzeak EAE	1.672	1.855	1.636	1.593
Birgaixotzeak Nafarroa	419*	458	476	462
Birgaixotzeak guztira	2.091*	2.313	2.112	2.055

Birgaixotzeak:

Mutualitateko sendagileek langileak sendatu aurretik emandako alten erakusle dira. Langileei, lanak eragindako aldi baterako ezintasun bat pairatu eta osatu gabe daudela itzularazten zaie lanera, osasun printzipioen kontra. Gogoratu behar dugu mutualitateen lehentasuna ez

dela langilea osatzea, hau lehenbailehen lanera itzultzea baizik. Batzutan, lanean jarraitzeko ezintasunak behartuta, mutualitateko sendagileek berriro ere baja preskribatu behar izaten diote langileari, beren praxi okerra agerian utziaz. Hau baina, oso gutxitan izaten da aitortua eta gehienetan, langileek osatu gabe itzuli behar izaten dute lanera mutualitateko sendagileek kriterio ekonomizistak hobesten dituztelako.

ISTRIPU LARRIAK

Datu ofizialek erakusten dute istripu larrien aitortza testimoniala dela. Mutualitateek jakinarazitako istripu horietatik soilik 263 kalifikatu dituzte larri bezala. Publikoki salatu behar da larritasuna, enpresaren interesak babesten dituen mutualitatearen sendagilearen kriteriopean kalifikatzen dela, hau da, gaur arte ez dago inongo arau edo legerik larritasunaren parametroak zehazten dituenik. Beraz, larri kalifikaturiko guztiak larriak direla ez du inork zalantzan jartzen. Galdera da arintzat jotako zenbat ote diren benetan larriak.

Nafarroako Gobernuak uda aurretik argiratzen du aurreko urteko ezbeharren txostena. Bitartean, datu mugatu batzuk argitaratzen ditu webgunean (soilik istripuak). Gogorarazi nahi dugu datu hauek ere mutualitateek ematen dituztela eta administrazioak bere egiten dituela, ontzat emanaz. 80 istripu larri izan dira 2025ean aitortutakoak.

Salatu behar dugu langileriak sobera ezagutzen duena, hau da, mutualitateek ez dituztela istripu larriak larri bezala kalifikatzen, eta ahal den heinean ez dutela bajarik preskribatzen. Mutualitateek, ahal duten heinean, laneko edozein istripu edo lesio kontingentzia arrunt gisa kalifikatzen saiatzen dira. Hauen artean, arazo muskuloesketikoek eta enpleguak eragindako arazo psikologikoek izaten dituzte faltsutze daturik altuenak.

Beraz, datu ofizialek erakusten digutena oso larria da, eta benetako egoera are larriagoa.

7. LANEKO GAIXOTASUNAK

Zalantzarik gabe, laneko gaixotasunena da lan munduan dagoen iruzurrik handiena lan osasunari dagokionean. Mutualitateek lanak sortutako gaixotasunak Gizarte Segurantzara bideratzen dituzte modu prozedimentatuan. Honela, patronalak bere irabaziak bermatzeko langileen artean eragindako gaixotasunak Gizarte Segurantzak bere gain hartu behar ditu, eta mutualitate patronalek beren tratamendu eta prestazioen inguruko ardurei bizkar ematen diete. Langileria eskubideen deusezte hau eta gizarteari egiten zaion iruzur hau kontrolatzeko tresnarik ez dago. Patronala da erabakia hartzen duena.

Honen aurrean, langileok ibilbide juridikoa abiatu behar dugu gaixotasun hauek laneko gaixotasunak direla aitor dadin, eta trabaz beteriko bide luzea izan ohi dugu aurretik. Adibide gisara, prozedura juridiko horietan mutualitateek eramaten dituzten baliabideak eta peritoak diru publikoz finantzatuak izaten dira, sistema are gehiago bihurrituaz.

2025an aurkeztutako datuek gauza bakar bat adierazten dute, ez daudenak daudenak baina askoz gehiago direla. Kopuruak aztertuz gero ikusi daiteke errealitatetik oso urrun daudela eta iruzurra guztiz nabaria dela.

Pandemiatik hona, arrisku psikosozialek eragindako kontingentziak lidergoa bereganatu dute laneko arriskuen artean. Hauek ez dira laneko gaitz gisa onartzen eta denak izendartzen dira kontingentzia arrunt bezala, nahiz eta lanak eragindakoak izan. Kopurutan, sistemaren iruzurrik handiena topa dezakegu hemen.

Datu ofizialek laneko gaitzen gorakada nabarmentzen dute, baina esan bezala, ideia nagusia ez da aitortutakoak zenbat igo diren, onartu gabe zenbat dauden baizik.

EAE gaixotasun profesionalak	2025	2024	2023	2022	2021	2020	2019
Bajarekin	1.616	1.558	1.573	1.360	1.340	-	-
Baja gabe	1.994	1.723	1.768	1.469	1.360	-	-
GUZTIRA	3.610	3.281	3.341	2.829	2.700	2.390	3.158

Gaixotasun profesionalak Nafarroan	2025	2024	2023	2022	2021	2020	2019
Bajarekin	661	628	621	548	-	-	-
Baja gabe	971	876	833	771	-	-	-
GUZTIRA	1.632	1.504	1.454	1.319	1.276	1.217	1.375

* Nafarroaren kasuan, mutualitateek, adierazitako laneko gaitz horietatik 445 ukatu dituzte profesional bezala eta 239 ebazteke dituzte.

Minbiziaren inguruan ditugun azken datu ofizialak 2024ekoak dira. EAEn, soilik 34 laneko minbizi izan dira aitortuak. Aintzat hartu behar dugu OMEk¹⁰ berak minbizi laneko gaitz hilgarriena bezala kokatzen duela eta laneko heriotzen %80a laneko gaitzek eta istripu ez traumatikoek eragina dela. Erakundeak egiten duen baieztapen horrek beraz, argi uzten du minbizi laboral andana aitortu gabe dagoela.

- Amiantoak hildakoak.

ASVIAMIE 31 hildako EAEn 2025an.

2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
22	20	27	21	40	36	32	14	13	26	24+6 Nafarroan:30	31

Iturriak: EAEn ASVIAMIE eta Nafarroan ADAVAN

¹⁰ OME. Nuevo indicador mundial de la salud de los trabajadores: tasa de mortalidad por enfermedades atribuibles a determinados factores de riesgo profesionales. 9/5/2023. https://www.who.int/publications/i/item/pmc10225940?utm_source=chatgpt.com

Bien bitartean, erakunde hauek azaldu dute 60 epaiketa daudela abian EAEn laneko gaitzen aitortza eske eta 3 direla Nafarroan abian dituztenak.

Estatuan aitortu diren amiantoak eragindako minbizien ia erdia EAEn izan da. Bistan da presio sindikalak eragina duela honetan, nahiz eta oraindik ere errealtatetik oso urrun gauden, hau da, laneko minbizi askok aitortu gabe jarraitzen dute. Europako beste herrialdeekin konparatuta, datuak oso baxuak dira, eta hau iruzur orokortuaren beste erakusle bat da.

Honela, lanak sorturiko gaitzen tratamentu eta kostu osoa gizarte segurantzak ordaindu behar du eta nahiz eta beranduago laneko gaixotasun bezala errekonozituak izan, mutualitateek ez dute diru hori itzultzen. Patronala beti ateratzen da irabazle, eta langileria galtzaile.

Pasa den 2025ean hainbat kudeaketa egin behar izan ditugu amiantoaren eraginpean egoteagatik sortutako kasu larriengatik. Gero eta ohikoagoa den egoera pairatzen du langileriak. Hain zuzen, amiantoa kentzeko prozesuetan lanak ez dira egiten proiektuan adierazten den moduan eta bai amiantoa kentzeko lanetan diharduten langileek eta bai inguruan aritzen diren beste langile edo herritarrek gai kutsakor hau arnasteko arriskua izaten dute. Behin eta berriz errepikatzen diren egoera hauek salatu ditugun arren, administrazioak ez du behar bezala esku hartzen. Egungo prebentzio ezak, nahiz eta egoerak ezagunak izan, etorkizuneko heriotzak eragiten jarraituko ditu honenbestez.

LAN ISTRIPUEK ERAGINDAKO HERIOTZAK 2025 (Sindikatuon kontaketa)

Osalanek gardentasunik gabe aitortutako heriotzak
Nafarroan edo Nafarroako langileak

Zk.	DATA	ISTRIPUAREN TOKIA	ENPRESA	LANGILEA	ADINA	ISTRIPU MOTA	OSALANEK KOMUNIKATUA
1	25-01-07	Gasteiz	Excavaciones Mendiola	I.R.T.,	54	Makina batek harrapatuta	komunikatua
2	2025/01/10	Añezkar	Berrioazarko Udala	J.M.C.C.,	53	In itinere	
3	2025/01/10	Añezkar	CW Uzturre SL	M.A.A.Z.,	57	In itinere	
4	2025/01/10	Itza	Taxi gidaria	A.O.L	28	In itinere	
5	2025/01/30	Arbizu	Eraikuntzan	J.A.A	52	Grua lumak harrapatuta	
6	2025/01/-	Bizkaia	Egur eta altzariak (sektorea)	-	-	-	
7	2025/02/11	Tutera	Garraiolaria			Ez traumatikoa	
8	2025/02/12	Pasaia	garraiolaria	A.D.O.	48	Ez traumatikoa	
9	2025/02/18	Martzilla	Gruas EDU	D.U.	46	Kotxe batek harrapatuta	
10	2025/02/---	Araba	Eraikuntza	-	-	-	

11	2025/03/04	Elorrio	Betsaide enpresan lanean ari zen Grupo Oneko langile azpikontratua	Y.B.	38	Makina batek harrapatuta	komunikatua
12	2025/03/05	Fitero			47	Kamioi istripua	
13	2025/03/05	Fitero			46	Kamioi istripua	
14	2025/03/05	Fitero			41	Kamioi istripua	
15	2025/03/05	Fitero			47	Kamioi istripua	
16	2025/03/13	Madril	Barquin y Otxoa Garraiolaria	M.A.A.C.	62	Trafiko istripua	
17	2025/03/17	Arratzu	Amuriza Cubiertas y Rehabilitaciones, SL	S.F.P.,	62	Elektrokatututa	komunikatua
18	2025/03/17	Buñuel	Liverco	F.J.M.Z.	34	Makina batek harrapatuta	
19	2025/03/---	Araba	Eraikuntza				
20	2025/03/---	Gipuzkoa	Egoitzak				
21	2025/04/04	Agoitz	Tejados Aoiz		55	Altueratik erorita	
22	2025/04/14	Hernani	Transportes Petroliferos Coordinados SL	E.P.R.	57	Ez traumatikoa	komunikatua
23	2025/04/--	Araba	Garraioa			In itinere	
24	2025/04/---	Bizkaia	Zerbitzuak				
25	2025/04/--	Gipuzkoa	Kirol eta aisialdi jarduerak			In itinere	
26	2025/05/06	Laudio	BEBIDAS SERRANO, S.L	M.A.S.G.	60	Ez traumatikoa	komunikatua
27	2025/05/19	Irun	Transdipe, S.L.	S.S.	66	Ez traumatikoa	komunikatua
28	2025/05/26	Andosilla	Industrias Sueskun	J.C.A.A	50	Karga gainera erorita	
29	2025/05/26	Atxondo	Conprovincial enpresarentzat AHTko lanetan	A.H.G.	49	Pieza baten erorketak zauri larriak eragin ostean, odolustuta	komunikatua
30	2025/05/27	Amurrio	Tubos Reunidosen lanean ari zen Pavinpronteko langilea. Azpikontr.			Altueratik erorita	komunikatua
31	2025/05/28	Donostia	Transportes Europeos Gorbea	M.R.D.L.		Ez traumatikoa	komunikatua
32	2025/05/29	Bilbo	Autonomia Eraikuntza	F.J.M.D.	61	Altueratik erorita	komunikatua
33	2025/05/29	Tafalla	Monbake	R.J.M.	31	In itinere	
34	2025/06/16	Mungia	Mesa	C.J.V.G.	58	Ez traumatikoa	komunikatua
35	2025/06/16	Mendoza	Otis Mobility	J.M.B.P.	46	In itinere	
36	2025/06/23	Altsasu			45	Adar baten kolpea jasota	

37	2025/06/23	Donostia	Parques Históricos 2023 Aldi Baterako Enpresa Elkartea	J.M.E.G.	65	Ez traumatikoa (belarra txarrak belauniko kentzen)	komunikatua
38	2025/06/24	Eskoriatza	-	E.A.M.C.		Adar baten kolpea jasota	komunikatua
39	2025/06/---	Bizkaia				Eraikuntza	
40	2025/06/---	Bizkaia				Garraioa	
41	2025/06/---	Gipuzkoa				Lorezaintza In-itinere	
42	2025/06/--	Bizkaia	Komertziala			In itinere	
43	2025/07/08	Ribaforada	EUROTRANS RUEDA SL			Ez traumatikoak NOPLOIk komunikatua	
44	2025/07/15	Gasteiz	Autonomoa	A. V. C	57	Teilatu batetik eroria	komunikatua
45	2025/07/19	Iruñea	Etxe langilea			Ez traumatikoak NOPLOIk komunikatua	
46	2025/07/23	Muxika	Garraiolaria	G.I.A	50	Zamatze makina batek kolpatuta	komunikatua
47	2025/08/13	Bartzelona	Garraiolaria	A.F.R	54	Kamioia deskargatzen	
48	2025/08/14	Orereta	Garraiolaria	J.M.G.D	58	Ez traumatikoa	komunikatua
49	2025/08/27	Erriberri	Garraiolaria Euroherjatrans, S.L.	R.I.R	38	Kamioi istripua	
50	2025/08/29	Iruñea	Volkswagen	I.A.L	50	Ez traumatikoa	
51	2025/09/02	Azazeta	Serveo	A.L. de M.	56	In itinere	
52	2025/09/17	Tafalla	Salmenta-makina hornitzailea		43	In mision	
53	2025/09/23	Gasteiz	Saltzailea	A.R.O	49	Ez traumatikoa	komunikatua
54	2025/10/-	Araba	Eraikuntza espezializatua	-	-	-	
55	2025/10/-	Araba	Lurreko odi bidezko garraioa	-	-	-	
56	2025/10/-	Gipuzkoa	Lurreko odi bidezko garraioa	-	-	-	
57	2025/10/02	Donostia	GOMEZ SAEZ S.L. Komertziala	J.M.G.G,	62	Ez traumatikoa	komunikatua
58	2025/10/06	Barakaldo	Eraikuntza		61	Ez traumatikoa	
59	2025/10/06	Ordizia	Gureak	M.A.Z.A	61	Ez traumatikoa	komunikatua
60	2025/10/07	Tiebas	HORMIGONES ARGA, S.A.			Ez traumatikoa NOPLOIk komunikatua	
61	2025/10/09	Bera	Embalajes Martinez	G.S.G	47	Ez traumatikoa	
62	2025/10/15	Maule	Nekazaria Autonomoa		20	Traktore istripua	
63	2025/10/15	Muxika	Transportes Barreira	A.C.T	63	Ez traumatikoa	
64	2025/10/13	Berriz	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	F.J.P.C	60	Ez traumatikoa	

65	2025/10/22	Arrigorriaga	Heidelberg Materials Hispania Cementos	J.L.J.	45	Tornoak harrapatuta	komunikatua
66	2025/10/29	Zalla	GRUSAR logística y distribución, Amazonen azpikontrata	D.J.G.	39	Furgoneta trenak harrapatuta	komunikatua
67	2025/11/-	Bizkaia	Metalikoak ez diren beste produktu mineralen fabrikazioa	-	-	-	komunikatua
68	2025/11/-	Bizkaia	Posta zerbitzua	-	-	-	
69	2025/11/02	Barakaldo	Gurutzetako ospitaleko azpikontrata bateko langilea	M.L.I.	55	Ez traumatikoa	
70	2025/11/06	Iturmendi	Zubillaga Saralegi, SL	E.A.D.	62	Adar batek jota	
71	2025/11/10	Gernika	Mahastia lantzen	I.B.D.	49	Ez traumatikoa	komunikatua
72	2025/11/14	Urdazubi	Baionako Hospitalea	E.P.	51	In itinere	
73	2025/11/17	Igantzi	Autonomoa baserritarra	JM AR	67	Traktorea iraulita	
74	2025/11/20	Azpeitia	Construcciones Tulitan	S.P.		Altueratik erorita	komunikatua
75	2025/11/22	Zizur Nagusia	Osasunbidearen sukaldea	R.M.E.L.	55	in itinere	
76	2025/11/24	Abartzuza	Huevos Guillen			Kamioiak azpian harrapatuta	
77	2025/12/02	Belate	Belateko tunelaren eraikuntzan		51	Ez traum	
78	2025/12/02	Igorre	Maderas Yurrebaso	J.A.B.E.	57	Ez traumatikoa	komunikatua
79	2025/12/04	Azofra	Transportes Abad Bobadilla	J.M.M.A	48	Zementuzko tubo batek kolpatua	komunikatua
80	2025/12/15	Irun	Garraiolaria			Beste kamioi batek harrapatuta	
81	2025/12/20	(Itsasoan)	Aketxe SA Ondarroa	U.Z.B	53	Ez traumatikoa	
82	2025/12/29	Laudio	Garraiolaria (Eroskik azpikontratatua)	J.D.B	58	Ez traumatikoa	komunikatua
83	2025/12/29	Azagra	Gizarte zerbitzuetako langilea	A.E.N	59	In mision, kamioiak harrapatuta	komunikatua
84	2025/12/-	Araba	Osasun jarduerak	-	-	-	

***PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE***

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU